

Behargin bat hil da Laudion

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 06/05/2025

Aurten, gutxienez hemeretzi langile hil dira Euskal Herrian. Bestalde, 62 urteko langile bat larri zauritu zen atzo Arangurenen.

Gaur, goizeko 08:30 aldera, langile bat hilda aurkitu dute Laudioko (Araba) Bebidas Serrano lantegian. Langilea lurrean etzanda topatu dute, korderik gabe eta suspertzen saiatu badira ere, ezin izan dute bizia salbatu. Lehen zantzuen arabera, lan istripu ez-traumatikoa izan du beharginak (adibidez, bihotzekoak jota).

Bestetik, 62 urteko gizon bat larri zauritu zen Arangurenen, hondakinak tratatzeko zentro batean lanean ari zela izandako istripuan. Ikertzen ari diren arrazoiak direla eta, orga jasotzaile batek langilea harrapatu zuen, eta horrek hankan zauri sakona eragin zion. Langilea Nafarroako Unibertsitate Ospitalera (Iruñea) eramán zuten anbulantzian, eta larri dagoela ospitaleratu zuten.

<https://eh.lahaine.org/behargin-bat-hil-da-laudion>